

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**60/2016 Mozioa, urriaren 19koa, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko berehala sinatu ditzala Gizarte Eskuhartzeko Hitzarmenetik eratorritako eginbeharren aplikazioa ordaintzera bideratutako lankidetzaz-hitzarmenak**

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

60/2016 Mozioa, urriaren 19koa, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko berehala sinatu ditzala Gizarte Eskuhartzeko Hitzarmenetik eratorritako eginbeharren aplikazioa ordaintzera bideratutako lankidetzaz-hitzarmenak

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Arabako gizarte zerbitzuen arloan lanean ari diren entitateekin lankidetzaz arituz, eta modu arduratsu eta adostuan, irizpide murriztaileak aplikatu barik, adostu ditzatela Gizarte Eskuhartzeko Lehen Hitzarmena aplikatzeko baldintzak hala behar den kasu guztietan. Dagozkien lankidetzaz-hitzarmenak sinatuko dira horretarako al bait azkarren.

2. Arabako Batzar Nagusiek berriz ere adierazten diete beren errekonozimendua eta babesa Arabako gizarte zerbitzuen arloan lanean ari diren irabazi asmorik gabeko elkarteei, bai eta Gizarte Ongizatearen Foru erakundeko teknikariei, Gizarte Eskuhartzearen Hitzarmenaren aplikaziorako egin duten lanarengatik.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 19a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**